



TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA

2018KO UZTAILAREN 12AN BATZARRAK EGIN ZUEN BILKURAKO AKTA.-

Tolosako udaletxearen Pleno aretoan egin du bilera 2018ko uztailaren 12an, 18:10tan, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN Batzarrak, JOSU AMILIBIA ALSUA Lehendakaria mahaiburu delarik, eta horretara ondoren zerrendatuko diren udaletako alkate eta zinegotziak bertaratu dira:

BERTARATUAK:

BATZARRAREN LEHENDAKARIA (%0,77): Josu Amilibia Alsua
ABALTZISKETAKO UDALA (%0,54): Kepa Gorostidi Garmendia
ALEGIAKO UDALA (%2,85): Unai Iraola Aguirrezabala
ANDOAINGO UDALA (%23,92): Jon Zulueta Berastegi
ANOETAKO UDALA (%3,09): Aratz Luisa Urkola
BERASTEGIKO UDALA (%1,72): Amaia Azkue Eizagirre
BERROBIKO UDALA (%0,93): Joseba Iñigo Aiertza Mujika
GAZTELUKO UDALA (%0,28): Edurne Garcia Azurmendi
IBARRAKO UDALA (%6,95): Mikel Agirrezabala Ezkurdia
IKAZTEGIETAKO UDALA (%0,76): Bakarne Otegi Jauregi
IRURAKO UDALA (%2,73%): Jose Ramon Epelde Irizar
LARRAULGO UDALA (%0,42): Aritz Sarria Sarasketa
LEABURU-TXARAMAKO UDALA (%0,61): Itziar Zubelzu Urbietta
LIZARTZAKO UDALA (%1,05): Leyre Gordo Castro
OREXAKO UDALA (%0,20): Eneko Maioz Ganboa
TOLOSAKO UDALA (%30,91): Patxi Amantegi Zubiria
VILLABONAKO UDALA (%9,61): Maite Izagirre Irazustabarrena

ETORRI EZ DIRENAK:

ALBIZTURKO UDALA (%0,53): Carlos Ugartemendia Leunda
BALIARRAINGO UDALA (%0,21): Martzelino Dorronsoro Galarraga
BELAUNTZAKO UDALA (%0,42): Silvia Moneo Cid
ELDUAINGO UDALA (%0,39): Miren Amaia Askasibar Agirre
ZIZURKILGO UDALA (%4,89): Aitor Sarasua Arruti

GAI ZERRENDA

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

- 1. 2018ko maiatzaren 17ko Batzarraren Akta onartzea.**
- 2. Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20180524.015tik LE20180626.018ra.**
- 3. 2017ko Kontu Orokorren onespena.**
- 4. Mankomunitatearen inbentarioaren eguneraketa 2017ko abenduaren 31ra.**
- 5. Tolosaldeko Mankomunitatearen esparruan Hiri Hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren esleipen akordioaren proposamena.**

6. Tolosaldeko Mankomunitatea eta Hiltegi Mankomunitatearen artean udal elkarte osatzeko estatutoen onarpen proposamena.
7. Tolosaldeko Mankomunitatearen estatutoak aldatzeko proposamenaren onespina.
8. Kontratazio prozedura: Tolosaldeko Mankomunitatearen esparruan etxeko olio erabilia eta hondakin arriskutsuak gaika bildu eta garraiatu, jasotako olio prozesatu, olioaren edukiontzien eta hondakin arriskutsuen etxolen garbiketa eta mantentze lanak kontratatzeko Baldintza Plegu Tekniko eta Administratiboen onspen proposamena.
9. Kontratazio prozedura: Hondakinen gaikako bilketa bultzatzeko hezitzaileen zerbitzua kontratatzeko Baldintza Plegu Tekniko eta Administratiboen onspen proposamena.
10. Kontratazio prozedura: Tolosaldeko Mankomunitatearen esparruan materia organikoa eta errefusaren karakterizazio lanak kontratatzeko Baldintza Plegu Tekniko eta Administratiboen onspen proposamena.
11. Tolosaldeko Mankomunitateko instalazio eta kamioien gordelekurako azpiegituren bideragarritasun azterketa.
12. Galde-erreguak.

Mankomunitatearen Idazkari den Leire Arteaga Zumetak eman dio fede aktari, Gemma Eceiza Mankomunitateko teknikariaren aurrean.

Lehendakariak Altzo, Amezketa, Asteasu, Hernialde eta Orendaingo ordezkariak gutunak aurkeztu ondoren eta Idazkariak estatutueto 18.2 artikuluan diona egiaztatu ondoren, aipatutako udalerrri hauen ordezkariak jarraian agertzen den moduan geratzen da:

ALTZOKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua
AMEZKETAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua
ASTEASUKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.
HERNIALDEKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.
ORENDAINGO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

Estatutuen 45. artikuluan xedatzen den bilerakideen kopurua bete denez lehenengo deialdian, Batzarra eratutzat jo da. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo dute bilerakideek.

1. 2018ko maiatzaren 17ko Batzarraren Akta onartzea.

Izenburuan erlazionatutako akta ahobatez onartu da.

2. Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20180524.015tik LE20180626.018ra.

Mankomunitate honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza,

Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Lehendakariak Batzarrari jakinarazi dizkio azken bileraz geroztik hartutako erabakiak.

LE20180524.015

LE20180530.016

LE20180614.017

LE20180626.018

Batzarra jakinaren gainean geratu da.

3. 2017ko Kontu Orokorraren onespena.

2017 ekitaldiko Kontu Orokorraren espedientearen iragarkia azaldu da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 101 zbk.an, 2018ko maiatzaren 28koan, 15 eguneko epea ezarri alegazioak aurkezteko. Epea amaitu ondoren ez denez erreklamaziorik jaso, Batzarrari eskatzen zaio bere onespena eman dezan.

Beraz, eskatutako azalpen guztiak eman ondoren, Batzarrak, ahobatez,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2017 ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra onartzea, bertan agertzen diren dokumentu nagusi eta bere osagarrien arabera.

BIGARRENA.- Espedientearen kopia bat Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea.

HIRUGARRENA.- Espedientearen kopia bat Herri-Kontuen Euskal Epaitegira bidaltzea, erakunde honi dagokion kanpo fiskalizazioa egin dezan.

4. Mankomunitatearen inbentarioaren eguneraketa 2017ko abenduaren 31ra.

Tokiko Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, tokiko erakunde guztiak osatu behar dute bere ondasun eta eskubideen inbentario orokorra. Hori dela eta, indarrean dagoen legediari jarraiki, Tolosaldeko Mankomunitateko Inbentario Orokorra osatzeko dagokion prozedura jarraitu eta espedientea izapidetu da.

Kontuhartzailearen txostenaren arabera, 2017ko abenduaren 31n osatutako Tolosaldeko Mankomunitateko inbentarioaren egiazko balioa 1.969.491,12 eurokoa da guztira, eta balio historikoa 2.410.052,22 eurokoa.

Txosten hau eta gainerako guztiak, espedientearen barneratzen dira.

Ondoren, Batzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2017ko abenduaren 31ko datan osaturiko Tolosaldeko Mankomunitatearen Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorra onartzea, zeinaren atalkako xehetasuna honakoa den:

KATEGORIA	BALIO HISTORIKOA (€)	EGIAZKO BALIOA (€)
Ibilgetu ez materiala	17.688,40	0,00
Orubeak eta partzelak	1.262,13	1.262,13
Ondasun higiezinak	1.423.747,76	1.265.549,90
Ibilgailuak	421.927,00	377.930,19
Instalazio teknikoak eta makineria	80.600,26	55.076,44
Informazio prozesuetarako ekipoak	73.668,78	19.935,57
Altzariak	391.157,89	249.736,89
GUZTIRA	2.410.052,22	1.969.491,12

BIGARRENA.- Inbentarioaren kopia oso bat Estatuko eta Erkidegoko Administrazioei bidaltzea.

5. Tolosaldeko Mankomunitatearen esparruan Hiri Hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren esleipen akordioaren proposamena.

Teknikariak hartu du hitza azaltzeko lehiaketa honen prozedura: pasa den urtarrilean Batzarrak Baldintza Plegu Administratibo eta Teknikoak onartu ondoren, hiru enpresa aurkeztu ziren lehiaketara. Prozeduraren azken fasera iritsita, gaur egungo kontratua betetzen ari den enpresak puntuazio altuena atera du, bai atal ekonomikoan eta baita teknikoan ere, FCC eta Serbitzu enpresen arteko elkarteak. Beraz, bere alde egin da behin-behineko adjudikazioa. Kasu honetan, metatutako esperientzia klabea izan da beraiei esleitzeko, aurkeztu duten eskaintzak pleguen baldintza guztiak betetzen dituelako. Aldiz, beste bi enpresek ez dituzte puntu batzuk kontuan hartu, eskualdea ez dutelako ondo ezagutzen.

Aldaketarik esanguratsuenetako bat izango da kamioi guztiek eramango dituztela edukiontzia pisatzeko sistemak. Era horretan, pisu zehatzak jakingo dira, ez gaur egun

erabiltzen diren estrapolazioak. Pisuak edukiontzi bakoitzeko, herri bakoitzeko, eskualdeko... lortu ahal izango dira.

Eskaintza onena eskaini duen enpresa elkarteak lau kamioi berri jarriko ditu mankomunitatearen zerbitzura, merkatuko onenatarikoak (Scania eta hibridoak). Guztira, bost ekipo jarriko dira martxan, industrigunean hiru ibiliko dira eta atez ate/bolseoa eta kartoi komertzialaren bilketarako lau kamioi konpaktadore arituko dira, handien funtzioak bete baina tamaina txikiagokoak izango direlarik. Hau da, aldakorrak izango dira, mugitu daitezkeenak batetik bestera.

Edukiontziei dagokionez, alboko kargako guztiak aldatuko dira, baita industrian eta atez ateko sisteman erabiltzen diren kuboak ere. Gainera, denak identifikatuta egongo dira txip batekin.

Instalazioei dagokienez, enpresa elkarte irabazleak bi gune proposatu ditu: bata Alegiko industrialdean, egunero erabiliko diren kamioiak gordetzeko, eta bestea Tolosako Artzabaltza industrigunean, edukiontziak nahiz erreserbako ibilgailuak gordetzeko.

Gainontzeko bi eskaintzak ez dira egokiak ikusi instalazio aldetik. Batek Anoetako industrialdea proposatzen zuen, baina horrek Irurako herrigunea beti zeharkatu beharra zakarren. Eta besteak Tolosako Usabalen proposatzen zuen pabiloia, baina metro aldetik txikiegia antzematen zen.

Puntuazioaren gainean, lehen aipatu bezala, bai proposamen teknikoan eta baita ekonomian ere, FCC eta Serbitzu enpresen elkarteak gailendu da. Bigarren Cespa geratu da eta hirugarren Urbaser eta beste hiru enpresen arteko elkarteak geratu da. Bi proposamenetan enpresa berak puntuazio altuena lortzea onugarria da, teknikariaren ustez.

Lizitazioaren prezioari dagokionez, puntuazio gehien lortu duen enpresak %5ean jaitsi du, 2.977.846,24 € (BEZa gabe) eskeini duelarik.

Ezarketa fase bat aurreikusten da, zazpi hilabetekoa. Edukiontziak aurrea iritsiko dira, iraila-urria bitartean, baina kamioi berriak beranduago etorriko dira.

18:25tan Alkizako ordezkaria den Jon Umerez Urrezola bertaratzen da.

Honen harira, Lehendakariak hitza hartu du galdetzeko kontratazio berriaren prezioa noiz hasiko den ordaintzen, martxan hasten denean, hau da, datorren irailetik aurrera, edo kamioiak iristen direnean. Teknikariak erantzun dio irailean hasiko dela kontratu berria, beraz prezio berria ere, ez daukalako zerikusirik ibilgailuak noiz iritsiko diren. Bestela, lizitazioa nahikoa denborarekin jarri beharko zen martxan.

Amaitzeko, teknikariak azpimarratu nahi du kontratu berriak dakarren hobekuntza nabarmena pisuen informazio aldetik, rutak optimizatzen lagunduko duelako eta baita ere kanpainak hobeto lokalizatzen. Lehendakariak gaineratzen du herri handientzat ere onuragarria izango dela auzo lanketa egiteko.

Beraz, honako erabakia onartzea proposatzen da:

Ikusirik 2018ko urtarrilaren 8an Mankomunitateko zerbitzu teknikoaren aldetik Tolosaldeko Mankomunitatearen esparruan hiri hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren kontratazioa egiteko beharra antzeman dela, arrazoi hauengatik:

1. Mankomunitatea osatzen duten Udalek erakunde honen esku utzi dute hiri hondakin solidoen tratamendu eta biltegiatzearen kudeaketa, antolakuntza eta prestazioaren zerbitzua.
2. 2017ko abuztuaren 31an amaitu zen UTE TOLOSALDEA enpresarekin sinatutako kontratua, Tolosaldeko Mankomunitatearen esparruan hiri hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuari dagokiona.
3. Kontratu honi dagozkion Baldintza Administratiboko Pleguen 5. klausula eta Tolosaldeko Mankomunitatea arautzen duten Estatutuetako 32.g) artikulua arabera, 2017ko uztailaren 21eko Lehendakariaren Ebazpenaren bidez, zerbitzua urtebete gehienez luzatzea erabakitzen da, hau da, 2018ko abuztuaren 31 arte.
4. Adierazitako zerbitzua derrigorrez gauzatu behar da Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan.

Ikusirik zerbitzuaren ezaugarriak, prozedurarik egokiena prozedura irekia kontsideratzen da, eskaintza ekonomiko abantailatsuen eta esleipenerako zenbait irizpide.

Ikusirik 2018ko urtarrilaren 9an Kontuhartzaitzaren txostena igorri zela, indarrean dagoen aurrekontuko baliabide arruntekiko kontratazioak suposatzen duen portzentajeari buruz, kontratatzeko organo eskuduna zein izango den jakitearren.

Ikusirik 2018ko urtarrilaren 10ean Idazkaritzatik txosten-proposamena igorri zela, aplikagarri den legedia eta jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa, baita kontratua onartu eta esleitzeko organo eskudunari buruz ere.

Ikusirik LE20180110.001 Lehendakariaren Ebazpenaren bidez, 2018ko urtarrilaren 10ekoa, aipatutako kontratazioaren prozedurari hasiera ematea onartu zela, proposatutako kontratazioaren beharra eta egokitasuna argudiatuz.

Ikusirik 2018ko urtarrilaren 10ean kontratua eta esleipen prozesua arautu behar dituzten Baldintza Administratibo Partikularren eta Teknikoen Pleguak espedienteari gehitu zitzaizkiola.

Ikusirik 2018ko urtarrilaren 10ean, Kontuhartzaileak dagokion kreditu atxikipena egin zuela eta espedientearen ikuskatze txostena igorri zela, honako ondorioekin: Espedientearen izapidea egokia da.

Ikusirik Batzarraren Akordioaren bidez, 2018ko urtarrilaren 17koa, Tolosaldeko Mankomunitateko udalerrietan hiri hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren kontratuari dagozkion espedientea eta Baldintza Plegu Administratibo eta Teknikoak onartu zirela, prozedura irekiaren bidez, eskaintza ekonomikoki abantailatsuen eta

esleipenerako hainbat irizpide, eta era berean, esleipen berak suposatzen duen gastua onartu zela, lizitaziora dei eginez.

Ikusirik 2018ko otsailaren 2an Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean berrogeita hamabi eguneko epearekin lizitazio iragarkia argitaratu zela, 2018ko otsailaren 5ean Estatuko Aldizkari Ofizialean, 2018ko otsailaren 9an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratazio organoaren Kontratazio Profilean, interesdunek haien proposamenak aurkez zitzen.

Ikusirik lizitazioaren epean espedientean agertzen diren proposamenak aurkeztu zirela.

Ikusirik 2018ko ekainaren 8an Kontratazio Mahaia osatu zela, eta, honek, balorazio tekniko txostena jaso ondoren, FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS-SERBITZU ELKARTEA enpresaren aldeko esleipen proposamena egin zuela

Ikusirik 2018ko ekainaren 11an eskaintza ekonomikoki onuragarriena aurkeztu duen lizitatuari eskatu zitzaiona egiaztagiria aurkez zitzan, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Testu Bateginaren 146.1 eta 151.2 artikuluen arabera; era berean, ezarritako behin-betikoko bermearen egiaztagiria eta, gainera, kontratua betearazteko erabili beharreko baliabideak benetan badirela ziurtatzen duten dokumentuak.

Ikusirik 2018ko ekainaren 29an, FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS-SERBITZU ELKARTEA lizitatuak ezarritako behin-betiko bermea aurkeztu zuela, 148.892,31 €-koa, eta eskatutako egiaztagiria aurkeztu zituela.

Laguntzen dion dokumentazioa azterturik, Idazkaritzaren txostena ikusirik, eta Bigarren Xedapen Gehiagarria eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Testu Bateginaren 151.4 artikulua arabera, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Legegintza Dekretuak onartua.

Beraz, guztia azterturik, Batzarrak, ahobatez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Fomento de Construcciones y Contratas, S.L.-Serbitzu Elkarte enpresari esleitzea Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan hiri hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzu kontratua, prozedura ireki, eskaintza ekonomikoki abantailatsuena, zenbait adjudikazio irizpide, 2018ko urtarrilaren 18ko Batzarrak onartutakoa eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratua, 2018ko otsailaren 5ean Estatuko Aldizkari Ofizialean, 2018ko otsailaren 9an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratazio profilean.

BIGARRENA.- Indarrean dagoen gastuen aurrekontuari gastua egozteko ondorengo aurrekontuko partidetan: 0000.227.20.162.10; 0000.227.20.162.11; 0000.227.21.162.10; 0000.227.22.162.10; 0000.227.23.162.10; 0000.227.23.162.11; 0000.227.24.162.10; 0000.227.28.162.11; 0000.227.29.162.11; 0000.227.33.162.10

HIRUGARRENA.- Esleipendun izan ez diren lizitazailei adjudikazioa jakinaraztea, Sektore Publikoko kontratuei buruz Legearen Testu Bateginaren 151.4 artikulua arabera, azaroaren 14ko Errege Legegintza Dekretuak onartua.

LAUGARRENA.- Serbitzu Elkartea, S.L. enpresari jakinaraztea, Fomento de Construcciones y Contratas-Serbitzu-ren izenean, kontratuaren esleipenduna, akordio hau eta kontratua sinatzeko dei egitea.

BOSTGARRENA.- Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan hiri hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzu kontratuaren formalizazioa argitaratzea DOUE eta GAO-n.

SEIGARRENA.- Kontratuaren oinarriko datuak Sektore Publikoko Kontratuaren Erregistroari jakinaraztea, Sektore Publikoko Kontratuei buruz Legearen Testu Bateginaren 333.3 artikulua arabera, azaroaren 14ko Errege Legegintza Dekretuak onartua.

ZAZPIGARRENA.- Kontu Epaitegiari edo Erkidegoko kanpoko organu ikuskatzaileari igortzea kontratua formalizatu den dokumentuaren kopia ziurtatua, atxikituz eratorritako espedientearen laburpena, beti ere kontratuaren kopurua 150.000 € baino gehiago baldin bada. Hau guztia, kontratua formalizatu ondoren hurrengo hiru hilabetetan gehienez.

6. Tolosaldeko Mankomunitatea eta Hiltegi Mankomunitatearen artean udal elkartearen estatutoen onarpen proposamena.

2018ko maiatzaren 17ko ez ohiko Batzarrean onartu zen Tolosako Mankomunitatea eta Tolosako Hiltegi Mankomunitatearen artean, Idazkari kontu hartzaile lanpostua sortzeko eta mantentzeko Udal Elkartearen sortzeko prozedurari hasiera ematea eta estatutuak idazteko batzordekideak izendatu ziren.

Udal elkartearen sortzeko espedientearen barneratuta daude memoria, estatuto proposamena eta Idazkariaren txostena.

Udal elkartearen estatutuak idatzita horiek onartzea proposatzen zaio Batzarrari. Horretarako hartu beharreko erabakia gehiengo absolutoz izan behar da.

Idazkariak batzarkideei azaldu die, bidali zaiela memoria non jasota dauden udal elkartearen estatutoen proposamena, bi erakundearen artean Idazkari-Kontu hartzaile postua mantentzeko. Gaineratu du oso sinpleak direla, ahalik eta malgutasun gehien izan dezaten.

Tolosako Hiltegiak oraindik ez ditu estatutuak onartu, beraz, lehen pausu hori ematea ezinbestekoa da prozedurak aurrera jarrai dezan.

Beraz, guztia azterturik, Batzarrak, ahobatez, zeina Batzarraren gehiengo absolutoa suposatzen duen:

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosaldeko Mankomunitatea eta Tolosako Hiltegi Mankomunitatearen artean udal elkarte osatzea onartzea, bien artean Idazkari-Kontu hartzaile lanpostua mantentzeko.

BIGARRENA.- Udal elkartearen estatutuen proposamena onartzea.

HIRUGARRENA.- Eusko Jaurlaritzari eskatzea udal elkarteko lanpostua sortu eta 3. Mailako idazkaritza gisa sailkatzea, hau da Idazkari kontu hartzailea.

LAUGARRENA.- Akordio hau Tolosako Hiltegi Mankomunitateari jakinaraztea eta Eusko Jaurlaritzari espedientea bidaltzea.

7. Tolosaldeko Mankomunitatearen estatutoak aldatzeko proposamenaren onespena.

Lehendakariak hartu du hitza adierazteko gai hau mahai gainean utzi beharrean daudela, oraindik prozedura amaitzeko zenbait pauso falta direlako. Mankomunitatearen bidez zerbitzu berriak eskaini ahal izateko (adibidez, gizarte zerbitzuak), estatutoak aldatu behar dira alde aurretik. Foru Aldundiak ere aldeko txostena igorri behar du. Horretarako, bilera bat egin behar dute bi aldeek, mankomunitateak aurkeztu duen proposamen zirriborroari dagozkion xehetasun eta ñabardurak adosteko elkarrekin. Bilera hori aurreikusten da datorren irailean izango dela. Ondoren, akordio proposamena eta txostena mankomunitatea osatzen duten 28 udalerrien udalbatzek onartu behar dituzte. Akordioak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxe bakoitzaren iragarki-tauletan argitaratu eta alegazio epeak igaro ondoren, azken pausoa mankomunitateko Batzarrak akordioa behin-betiko onartzea izango litzateke.

Tolosako ordezkariak adierazi du bere udaleko idazkariaren ustez, aurkeztutako zirriborroak akats ugari dituela forma aldetik, eta oso garrantzitsua dela Foru Aldundiarekin batera lan txukun bat egin eta txosten egoki bat landu eta aurkeztea.

Orexako ordezkariaren ustez, legealdi hau amaitu aurretik onartu beharko litzateke estatutoen aldaketa, hau da, datorren urteko hauteskundeak baino lehen.

Lehendakariak azaldu du aldaketa garrantzitsua dela, estatutoen hiru oinarri ukitzen dituelako:

- Xedearen aldaketa: hondakinen kudeaketaz aparte, zerbitzu berriak amankomunean eskaintzea.
- Gehiengoen gaia aldatzea, estatuto berriak onartzeko.
- Zerga-sisteman aldaketa, erabileraren arabera ordaintzeko.

Beraz, berri eman ondoren, gai hau mahai gainean uzten da.

8. Kontratazio prozedura: Tolosaldeko Mankomunitatearen esparruan etxeke olio erabilia eta hondakin arriskutsuak gaika bildu eta garraiatu, jasotako olio prozesatu, olioaren edukiontzien eta hondakin arriskutsuen etxolen garbiketa eta mantentze lanak kontratatzeko Baldintza Plegu Tekniko eta Administrazioen onespenez proposamena.

Teknikariak azaldu die batzarkideei kontratazio honen Pleguak bidali zaizkiela. Batzar honetan proposatu nahi dena da bi pleguak onartzea batera eta prozedura ahalik eta azkarren martxan jartzea, gaur egungo kontratuaren luzapena amaitzear dagoelako.

Jarraian, Baldintza Plegu Administrazioen irizpidez informatzen da. Gutxi gora behera aurreko kontratuaren antzekoak dira:

- Gaur egungo kontratuaren prezioa mantentzea: 33.770 € (BEZa barne).
- Epea: bi urtekoa, gehi hiru luzapen. Guztira bost urteko iraupena gehienez, luzapenak barne.
- Jasotako olio esleipendunaren esku uztea.
- Prezioen berrikusterik ez ezartzea.
- Edukiontzi eta etxolen lagapena esleipendunari.
- Adjudikazio irizpideak: 51 puntu alderdi ekonomikoari, 49 teknikoari eta 6 puntu hobekuntzei.

Beraz, guztia azterturik, Batzarrak, ahobatez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosaldeko Mankomunitatearen esparruan etxeke olio erabilia eta hondakin arriskutsuak gaika bildu eta garraiatu, jasotako olio prozesatu, olioaren edukiontzien eta hondakin arriskutsuen etxolen garbiketa eta mantentze lanen kontratazio espedientea onartzea, bere lizitaziora dei eginez.

BIGARRENA.- Aipatutako kontratazioak Mankomunitate honi suposatzen dion gastua baimentzea, 33.770 eurokoa (BEZa barne), 2018 ekitaldirako Mankomunitate honen gastu goerako dagokion partidaren kontura.

HIRUGARRENA.- Tolosaldeko Mankomunitatearen esparruan etxeke olio erabilia eta hondakin arriskutsuak gaika bildu eta garraiatu, jasotako olio prozesatu, olioaren edukiontzien eta hondakin arriskutsuen etxolen garbiketa eta mantentze lanen kontratazioa arautzen duten Baldintza Administrazio Partikularreko eta Teknikoko Pleguak onartzea.

LAUGARRENA.- Kontratugile Profilan lizitazio-iragarkia argitaratzea, interesdunek egoki iruditzen zaizkien proposamenak hamabost eguneko epean aurkez ditzaten.

BOSTGARRENA.- Kontratazio mahaiaren osaketa Kontratugile Profilan argitaratzea, gutxienez zazpi eguneko aurrerapenarekin, Sektore Publikoaren Kontratu Legeko Testu

Bategineko 146.1 artikuluan, azaroaren 14ko Legegintzako Errege-Dekretuaz onartua, aipatzen den dokumentazioa kalifikatzeko ospatu behar den bilerari dagokionez.

SEIGARRENA.- Kontratuaren esleipena Lehendakaritzari eskuordetzea, Kontratazio Mahaiak eginiko proposamena kontuan hartuz.

9. Kontratazio prozedura: Hondakinen gaikako bilketa bultzatzeko hezitzaileen zerbitzua kontratatzeko Baldintza Plegu Tekniko eta Administratiboan onspen proposamena.

Teknikariak hartu du hitza azaltzeko, Plegu Administratiboak eta baita ere Teknikoak bidali zaizkiela batzarkideei.

Kontratazio hau gaur egun luzapenean dago eta azaroan bukatuko da, beraz, lizitazio berri bat jarri behar da martxan. Hezitzaileen lana eskualdean jarraitzea beharrezkoa ikusten da, kontuan harturik ere datorren irailetik aurrera, hiri hondakinen bilketa eta garraio zerbitzu kontratu berriaren ezarketak zenbait aldaketa ekarriko dituela, eta beraz, haien eginkizunak handituko direlarik: industriguneko edukiontzien aldaketak, etxeetako eta sortzaile berezien kuboen aldaketak..

Egun, bi hezitzaileen lana horrela banatzen da: bat Andoaingo informazio bulegoan dago eta bestea Tolosakoan, baina eskualde osoan mugitzen dira, beharren arabera. Informazio bulegoak udalenak dira, eta kontratu berriarekin ere horrela izaten jarraituko du. Puntu honetan, teknikariak azpimarratu nahi die, batez ere landa eremuko udalerriei, haiek ere hezitzaileen zerbitzuak eskatu ditzazketela, beharrezkoak ikusten badituzte. Adibidez, informazio kanpainetarako, hitzaldiak emateko....

Tolosako ordezkariak galdetu du ea hezitzaileak subrogatuko diren. Teknikariak ezezkoa erantzun dio.

Beraz, guztia azterturik, Batzarrak, ahobatez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Hondakinen gaikako bilketa bultzatzeko hezitzaileen zerbitzuaren kontratazio espedientea onartzea, bere lizitaziora dei eginez.

BIGARRENA.- Aipatutako kontratazioak Mankomunitate honi suposatzen dion gastua baimentzea, 98.549,66 eurokoa (BEZa barne), 2018 ekitaldirako Mankomunitate honen gastu egoerako dagokion partidaren kontura.

HIRUGARRENA.- Hondakinen gaikako bilketa bultzatzeko hezitzaileen zerbitzuaren kontratazioa arautzen duten Baldintza Administratibo Partikularreko eta Teknikoko Pleguak onartzea.

LAUGARRENA.- Kontratugile Profilan lizitazio-iragarkia argitaratzea, interesdunek egoki iruditzen zaizkien proposamenak hamabost eguneko epean aurkez ditzaten.

BOSTGARRENA.- Kontratazio mahaiaren osaketa Kontratugile Profilan argitaratzea, gutxienez zazpi eguneko aurrerapenarekin, Sektore Publikoaren Kontratu Legeko Testu Bategineko 146.1 artikuluan, azaroaren 14ko Legegintzako Errege-Dekretuaz onartua, aipatzen den dokumentazioa kalifikatzeko ospatu behar den bilerari dagokionez.

SEIGARRENA.- Kontratuaren esleipena Lehendakaritzari eskuordetzea, Kontratazio Mahaiak eginko proposamena kontuan hartuz.

10. Kontratazio prozedura: Tolosaldeko Mankomunitatearen esparruan materia organikoa eta errefusaren karakterizazio lanak kontratatzeko Baldintza Plegu Tekniko eta Administratiboan onespenez proposamena.

Teknikariak adierazi du, kasu honetan, ezin izan direla prestatu ez Plegu Administratiboak ezta Teknikoak ere, beraz, mahai gainean utzi beharreko kontratazioa da.

Karakterizazioak udazken honetan egitea aurreikusten dira. Iaz, bakarrik hondakin organikoa karakterizatu zen, baina aurreko errefusa ere egitea espero da. Landa eremuko herrietan udalerririk osoko hondakinak karakterizatzeko lirateke, eta atez ateko sistema daukaten herrietan herritarren eta sortzaile berezien arteko bereizketa egiteko asmoa da. Azkenik, herri handietan auzokara egitea aurreikusten da, laginak hartuz.

Beraz, berri eman ondoren, gai hau mahai gainean uzten da.

11. Tolosaldeko Mankomunitateko instalazio eta kamioien gordelekurako azpiegituren bideragarritasun azterketa.

Lehendakaririk hartu du hitza, gai honen inguruan orain arte egindakoa azaltzeko: azpiegitura hau non kokatu zitekeen erabakitzeko, udalerririk aukera eman zitzaien haien proposamenak aurkez zitzaten. Epea amaitu ondoren, bi kokaleku-proposamen jaso ziren:

1. Tolosako Usabal industriagunean, pabiloi pribatu batean.
2. Adunako industriagunean, lurzoru publikoan (eraiki gabea).

Bien artetik zein izango zen egokiena jakiteko, azterketa bat egin zen, zenbait ikuspegi kontuan harturik: kostua, funtzionalitatea... Azterketa egitea Toledo taldeari eskatu zitzaion, Sasietako Mankomunitateko eraikina berak egin zuelako.

Azterketaren emaitza honakoa izan zen:

5. Tolosako Usabalgo pabiloi pribatua: eraikina mankomunitatearen beharretara egokitzea 1.500.000€, eta eraikin beraren prezioa 4.000.000€. Guztira 5.500.000 € inguru.

6. Adunakoa: eraikinaren obra 2.600.000€ inguru, lurraren lagapena aparte. Kasu honetan, lurra ezin denez saldu, eremu publikoa delako, lagapen bat egingo luke Adunako Udalak, 30 urtera. Horren truke, inguruko errepideen egokitzapena eskatuko luke, 800.000€ gastua duena. Guztira 3-4 milioi inguru.

Emaitzak ikusirik, Tolosako aukera baztertzea erabaki da, batez ere garestiagoa delako.

Ondorioz, irailetik aurrera erabaki beharko da Adunan egin ala ez basearen eraikina. Hala ere, Lehendakariak dei egin die gainontzeko herriari, beraien lur eremuetan toki egokiren bat ikusten badute jakinarazteko. Beraz, aukera guztiak zabalik daude oraindik.

Azpiegitura hau egiteko ala ez, hondakinen bilketa eta garraioaren kontratu berrian aurreikusten diren bi pabilioien alokairuaren kostua ere kontuan hartuko da, urtean 90.000€-ko kostua iragartzen delarik zerbitzu honengatik.

Teknikariak gaineratu du eraikin berri honek mankomunitateko bulego orokorrak ere jasoko lituzkeela. Horrela, zerbitzu guztiak eraikin bakar batean jasoko lirateke, honako banaketa izanik:

- Beheko solairua: kamioien gordelekua.
- Solairuarte: bilketako enpresaren bulegoak.
- 1. solairua: mankomunitatearen bulego orokorrak.

Batzarra jakinaren gainean geratu da.

12. Galde-erreguak

Teknikariak hitza hartu du adierazteko Gipuzkoako Foru Aldundiak, hiri hondakinen bilakaerako datuak gordetzeko, aplikazio berri bat sortu duela, bertan auzokonpostajearen datuak eskatzen dituelarik berrikuntza moduan, hau da, herri bakoitzeko zenbat familik egiten duten auzokonpostajea. Horregatik, udalerriei laguntza eskatzen zaie, datu hori mankomunitatera helarazteko.

Berastegiko ordezkariaren ustez, zaila da datu zehatzat ematea.

Ibarrako ordezkariaren iritziz, aldiz, datu horiek ez dute zertan zehatzat izan beharrik. Orexako ordezkariak esan du hobarien datuak zehatzak direla, eta hortik atera daitezkeela auzokonpostajea egiten duten familien kopurua.

Lehendakariak hartu du du hitza adierazteko datuak zehatz-mehatzak izatea oso zaila dela, ohikoa izanik estimazioekin lan egitea.

Amaitzeko, teknikariak berriz ere eskatu die bildutakoei haien herrietako auzokonpostajearen datuak jaso eta bidaltzea.



Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko zazpiak eta erdi direnean, Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA